

IKASTOLA «PAZ DE CIGANDA»
IRUÑA - VILLAVA

UMETXOEN OTOITZAK

GOIZEKO OTOITZA

Aitaren, eta Semearen, eta
Espiritu Santuaren izenean. Amen.
Lagundu neri, ene Jaungoiko!
Zatoz lenbaitlen, Jauna, neri laguntzera.

OTOITZA:

Jaungoiko gure Jauna:
Zuk ekarri gaituzu egun berri ontara,
eutsi gaitzala gaur zure eskuak
pekatuan erori ez gaitezen;
gure itz, pentsamentu eta egite guziak
zure Aginduen bidetik ibilli ditezela.
Zure Seme Jesukristo gure Jaunaren
bitartez. AMEN.

MAIA BEDEINKATZEKO

Bedeinka gaitzazu, Jauna;
eta bedeinka zazu, zure esku zabalari esker,
artzera goazen janari au.
Jesucristo gu: e Jaunaren bitartez. Amen.

GABEKO OTOITZA

Jaungoiko guzaldunak gau on bat
eta eriotz on bat digula. Amen.
(Orain azterketa piska bat egin:
zer uts edo zer bekatu egin ditut
gaurko egunean.
Eskerrak eman Jaunari,
eman dizkigun gauza guztiengatik.
Barkatzio eskatu oker guztiengatik
Jaunaren aurka
Lagun urkoaren aurka).

OTOITZA

Salba gaitzazu, Jauna, gau-aldian;
gorde lo aldian;
Kristo'gan esna gaitezen
eta pakea atsedeen dezagun. Añaxe.

AINGERU ZAITZALLEARI:

Aingeru Zaitzalle, lagun on ori:
gau ta egunez lagundu neri.
Ez nazazula iñoiz bakarrik utzi;
Nik zerurako nai det bizi.
Ama Birgiñari:
Iru «agur, Maria» otoiz egin.

GURE AITA

Gure Aita, zeruetan zerana:
Santu izan bedi zure Izena,
etor bedi zure erreinua,
eguin bedi zure naia,
zeruan bezela lurrean ere.
Emaiguzu gaur egun ontako ogia;
barkatu gure zorrak,
guk ere gure zordunai
barkatzen diegun ezkeru;
eta ez gu tentaldira eramen,
bañan atera gaitzazu gaitzetik. AMEN.

AGUR, MARIA

Agur, Maria, graziaz betea;
Jauna da zurekin;
Bedeinkatua zera zu andre guztien artean,
eta bedeinkatua zure sabeleko frutu, Jesus.
Santa Maria, Jaungoikoaren Ama,
erregutu ezazu gu pekatarien alde
orain eta gure eriotzako orduan. AMEN.

AINTZA

Aintza Aitari, ta Semeari ta Espiritu Santuari.
Asieran zan bezelaxe, orain eta beti,
gizaldi ta gizaldietan. AMEN.